

## Udaletxe berria abian da!



Zaharrak berri: Autodeterminazio eskubidearen lehen hazia Itsasondon

Joxe Antonio Garmendia:

Herriko azken abeltzaina

Arbelaren ondarea (III)



Kaixo herritar!

**B**erriro ere zuen artean gara, oraingoan negua ate joka datorrela iragartzen duen hotzaren zantzuak goxatzeko asmoz, eta nola ez, Itsasondoko bizitza istorio interesgarriak kontatu eta herri mailan azken boladan hartu diren erabaki eta berri garrantzitsuenak zuei helarazteko gogo biziz.

Hamaikagarren alea osatu dugu jadanik, ez da marka makala, ez! Hau guztia, noski, ez litzateke posible izango proiektu xume bezain eder hau gauzatzeko zuetako askok egindako ahalgakin gabe. Beraz, mila esker beste behin ere aldizkarian parte hartu duzuen pertsona orori.

Udaletxe berria eraikitzeko ilusioari tarte berezia eskaini nahi izan diogunez, ale honen azala udaletxearen argazki berriarekin koloreztatu dugu. Herriko berriei jarraiki, zaborraren gaiak badu zeresanik, irakurri bestela Agenda 21eko atarian datorren idatzia. Orrialdeetan aurrera egin ahala, Itsasondoko azken abeltzainetako bati, Joxe Antonio Garmendiari, eginiko elkarrizketa duzue irakurgai, Unai Agirre kazetari lanetan ibili baita Iraola baserri inguruetan. Arbelaren inguruan gure herrian makina bat kontu eta istorio badirenez, zuen eskura jarri nahi izan ditugu hainbat bitxikeria.

Mikel Aramendik, berriz, zaharrak berri atalean Itsasondok autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zuen garaia dakar gogorra. Udazkeneko haizeak aire berriak ekarri ditu Euskal Herrira; dudarik gabe, gogotik astindu ditu betiko jokamoldeak eta jende asko eta askoren egoera eroso kinka larrian jarri du. Une honetan, Euskal Herria ilusiozko haize bolada batek astintzen du. Gure aukera da, bai politikan dihardugunona, baina batez ere herritarren erronka da mugimendu eta haize fresko hau geldiezina egitea. Oraintxe da gure aukera!!

Kontu horiek eta gehiago dituzue zuen zain. Beraz, astindu aldizkaria eta gozatu! ■



### Sarrerako bertsoak

DOINUA: *Oh baserritxo  
(Lazkao Txikirena)*

*Udaletxeak kanpo ta barru  
berrituko du itxura  
zabor bilketan iritxi gera  
konpostaiaren ordura  
jubilatuen egoitza listo,  
eskola berriz ondu da...  
gauza gehiago ere badira  
segi puntutik puntura. (Bis)*

*Iraolako Joxeantonio  
aspaldiko baserritar  
ta Artetxeko kazetariak  
baditu hainbat berri zahar,  
arbela eta gaztelekua,  
Lotsatiri bi irrifar...  
gaur ez badezu dena bukatzen  
jarraitu ezazu bihar. (Bis)*

## Gernikako hitzarmena

# Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa

**H**auxe da, hitzez hitz, Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa izeneko agiriak jasotzen duena.

Euskal Herria gatazka politikoa eta indarkeria bake bidera eta aterabide demokratikoetara eramateko aukera baten aurrean aurkitzen da.

Zentzu horretan, bermatutako indarkeriarik gabeko egoera eta normalizazio politikorako hastapena izan beharko da, ondoko edukietan oinarrituta:

- ETak nazioarteko komunitateak egiaztatze moduko su-eten iraunkorra eta aldebakarrekoa aldarrikatzea, jarduera armatua behin betiko uzteko borondatearen erakusle gisa.
- Eskubide zibil eta politiko guztien aitortza, proiektu politiko guztien jarduera eta garapena onartuz, kontuan hartuta giza eskubide guztien aitortpena eta salbuespenik gabeko babesa direla eskubide horiexen oinarria. Ildo horretan, Alderdi Politikoen Legea indargabetzea exijitzen dugu, eskubide nagusien urraketak tresna juridiko horretan oinarritzen direlako.
- Inoren aurkako mehatxu, presio, jazarpen, atxiloketa eta tortura mota guztiak desagertzea, edozein dela era pertsona horien jarduera edota ideologia politikoa.
- Euskal preso politikoen aurka aplikatzen den espetxe-politika etetea, konfrontaziorako estrategia gisa erabili da-eta. Era berean, honako neurri hauek hartzea, amnistiarako bidean lehen urrats moduan, gatazka politikoa eragindako preso eta iheslari bat bera ere egon ez dadin:

Preso guztiak Euskal Herrira ekartzea, dispersioarekin amaituz.

Gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea.

Epaituak izateko zain dauden preso prebentiboei behin-behineko askatasuna ematea.

Legeak ezarritakoak beteak dituzten zigortutako preso guztiei, baldintzapeko askatasuna ematea.

Legeak jasotzen dituen espetxe-onurak aplikatzea, murrizketarik eta arbitrariotasunik gabe.

Zigorra betetzeko muga berrogei urtetan ezartzen duen legedia indargabetzea.

- Jarduera politikoagatik epaituak izan diren pertsona eta erakundeen aurkako prozesu judizialak berraztertzea.
- Jurisdikzio eta epaitegi berezien eta salbuespeneko lege oro indargabetzea, eta horrekin batera, inkomunikazioa bertan behera uztea.
- Militante eta erakunde independentistei politikan aritzeko ezarri zaizkien debeku eta neurri murriztaileak bertan behera uztea.
- Nazioarteko eragileen parte-hartzea sustatzea, giza eskubideen urraketarik gertatzen ez dela egiaztatze helburuarekin.

Erakunde politiko, sindikal eta sozialok ETArri zein Espainiako Gobernuari galdegiten diegu erabakiak eta ekimenak har ditzatela horrelako egoera bat sortearren; alegia, indarkeriarik izango ez dela bermatua izango den eta normalizazio politikoa progresiboki garatuko den egoera.

Era berean, sinatzaileok uste dugu horrelako prozesu baten testuinguruan, non bake eta normalizazio politikoa nahi-koak lortuak egongo diren, ezinbestekoa izango dela elkarrizketarako eta negoziazio politikorako guneak zabaltzea, gatazkaren zioak eta ondorioak osotasunean aztertzea.

Elkarrizketa eta negoziazio politikoa dakartzan prozesu hau ondoko printzipio eta baldintzetan oinarritu behar da:

- "Mitchell Printzipioak" deitutakotan azaldutako konpromisoek zuzenduko dituzte elkarrizketa eta arlo guztiei buruzko negoziazioak:
- Gai politikoak konpontzeko, soilik bitarteko demokratiko eta baketsuak erabiltzea.

Alderdien arteko negoziazioaren emaitzetan edota negoziazio prozesuaren norabidean eragiteko asmoarekin egindako indarkeriaren erabilerari edo berau erabiltzeko mehatxuari aurkakotasuna agertzea.

Alderdien arteko negoziazioetan erdietsitako akordio oro errespetatzeko konpromisoa. Era berean, akordioaren alderen bat aldatu nahi izanez gero, soilik bitarteko demokratiko eta baketsuak erabiltzeko konpromisoa.

- Akordio politikoak lortzeko negoziazio prozesua eragile politiko, sindikal eta sozialen egitekoa baino ez da izango.
- Elkarrizketa politikoen edukiek Euskal Herriko kultura politikoko guztiak barne hartuko dituen akordioa izango dute helburu: euskal errealitate nazionalaren eta erabakitze ahalmenaren onarpenari buruz; barne eredu juridiko-instituzionalari eta, estatuetik lotura motari dagokionez, independentzia barne; eta herriak duen borondate demokratikoa errespetatzeari buruz.
- Aitortza, adiskidetzeta eta erreparazioa gatazka politikoa eta jatorri guztietako bortizkeriek eragindako biktima orori.

Gaur egun, gizarte ereduaren erruz, emakumezkoen eta gizonezkoen parte-hartzea ez da berdina; hori dela eta, emakumeek subjektu aktiboak izan behar dute konponbidean, gatazka politikoa hurbiletik ezagutu ez ezik horren ondorioak jasan ere egiten baitituzte.

Agiri hau sinatzen dugun erakunde politiko, sindikal eta sozialok bertan azaltzen diren postulatu guztiak geure egiten ditugu eta betetzeko konpromisoa hartzen dugu; halaber, nazioarteko eragileei eduki hauek helarazteko eta euskal gizartean parte hartzea sustatzeko lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, euskal gizarteak ere bere egin ditzan postulatu hauek. Izan ere, euskal gizarteak izan behar du bermatzaile bakarra konponbide demokratikoaren prozesuaren garapenean. ■

#### ERAGILEAK:

EZKER ABERTZALEA, EUSKO ALKARTASUNA, ARALAR, ALTERNATIBA, ABERTZALEEN BATASUNA, LAB, HIRU, ESK, ELB, EILAS, EHNE, GERNIKA BATZORDEA, TAT, IRATZARRI, HERRIA 2000 ELIZA, IKASLE ABERTZALEAK, GIZA ESKUBIDEEN BEHATOKIA, ALTERNATIBA GAZTEAK, GAZTE INDEPENDENTISTAK, GAZTE ABERTZALEAK, GAZTEHERRIA, EZKER SOBERANISTA, EUSKARIA, EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA, ETXERAT, BILGUNE FEMINISTA, AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA, APAIZEN KOORDINAKUNDEA.

- 03. **Egoera politikoa:** Gernikako Hitzarmena.
- 04-05. **Udaleko berriak:** Udaletxe berriaren proiektua.
- 06. **Jubilatuak:** Jubilatuta Eguna.
- 07. **Eskola:** Gure artistak honela ikusten dute mundua.
- 08. **Haurreskola:** Atxikimendua zer da?.
- 09-11. **Elkarrizketa:** Joxe Antonio Garmendia, herian geratzen den azken abeltzaina.
- 12. **Gizarte eta gazteria.**
- 13. **Inkesta:** Birziklapena.
- 14-15. **Arbelgintza Itsasondon:** Arbelaren ondarea.(III)
- 16-17. **Zaharrak berri:** Autodeterminazioaren lehen hazia Itsasondon.
- 18. "Ilunpetik argira" Liburuaren aurkezpena.
- 19. **Arantzadi:** Udalak lurrak erosi ditu ondare naturalaren kontserbazioa bermatzeko.
- 20-21. **Ibilaldia:** Itsasondo-loia-Sarobe-Itsasondo.
- 22. **Informatika:** Teknologia punta-puntan.
- 23. **Agenda 21:** Hondakinak biltzea Goierrin.
- 24-25. **Kultura.**
- 26. **Liburuaren txokoa.**
- 27. **Lorezaintza eta sukaldaritza.**
- 28. **Esaera zaharrak. Kultur agenda.**



# Udaletxe berriaren proiektua

Landa Gipuzkoa 32 proiektua Foru Aldundian 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan, berrindartzeko beharrezko diren obrak finantziatzeko programa da. Itsasondoko udalerrian programa honen bidez Udaletxearen berrikuntza obrak egin ahal izango dira; bertan, kultur gunea, ludoteka, udal zerbitzuak, liburutegia, bilkura gelak e.a. ezartzea aurreikusten da.

Foru Aldundiak onartutako ekimen honek laguntzak bideratzeko zenbait baldintza ezarri zituen, horien artean, Etorlur elkarte publikoa izendatu zen aipatu planeko inbertsioak gauzatzeko.

Prozesu honen barruan, Etorlur-ek deitutako ideia lehiaketa egin da, Itsasondoko Udalean gauzatu ahal izango den proiektua aukeratzeko. Lehiaketa hori arautzerakoan, Itsasondoko Udalak herritarrek ere parte hartzea nahi izan zuen. Izan diren emaitzak ikusi ondoren, parte hartze hori mugatua izan dela ikusi da, herritarren bozketaren ondoriozko emaitzak erabakiorrak izan ez direlako.



Gareia Proiektua

Herritarren bozketan, parte hartzea %15ekoa izan da, guztira 73 pertsona. Honako emaitzak izan dira:

	BOTOAK	PUNTUAZIOA
GAREIA	171	2
AZALBERRITU	161	1
ITZULTZEN	187	4
JANTZI GAINETIK	176	3
KUBRIX	205	5

Epamahaia osatu dute Etorlur-eko lehendakariak, Itsasondoko alkateak, hiru arkitektoak eta Foru Aldundiko teknikari batek. Beraiek emandako puntuazioari herritarrek emandako bozketaren emaitza gehitu zaio eta horren ondorioz irabazlea GAREIA izeneko proiektua izan da. Proposamen honen nortasuna ALD Ingenieria, Arquitectura eta Equipamiento S.L.P. enpresari dagokio.

Talde irabazlea dagoeneko proiektua erredaktzen hasi denez, urte amaierarako oinarritzko dokumentua eskuartean izatea espero dugu.



Azalberri Proiektua



Itzultzen Proiektua



Kubrix Proiektua



Jantzi Gaietik Proiektua

## DIRU-LAGUNTZAK

Azken hilabeteetan instituzio desberdinek egin dituzten diru-laguntza deialdiei erantzunez, honako proiektu hauetarako laguntzak eskatu dira:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera: ibilgailu elektriko bat erosteko laguntza, Ingurune Naturalaren eta Landa Eremuaren Kontserbaziorako ekimenak III. Fasea eta Agenda 21 Eskolarra gauzatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Erein programa: udaletxean Funtzio Kultural eta Erabilera anitzeko zentroa ezartzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Irisgarritasuna: Nagusia 7-19 bitarteko eremuaren egokitzapena eta Irisgarritasun Plan berria egiteko laguntza.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila: Gazte Ekipamenduaren izeneko proiektua Itsasondoko udaletxean

Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailari: Beko kaleko parkea egokitzeko eta herriko seinaleztapena egiteko.

Horretaz aparte, Foru Aldunditik zenbait laguntza jaso da Haur, Nerabe eta Gazteen ekintzak gauzatzeko, Itsasondo 2.0 aldirikako gastuak estaltzeko eta Ur Kontsumoaren kontabilizazio eta kudeaketa sistema ezartzeko.

Egoera ekonomikoak askorik laguntzen ez duen arren, espero da proiektu horietarikoren bat gauzatu ahal izateko laguntza lortzea.

## AZKEN BATZARRA

Iragan azaroaren 15ean udalak hiru hilabetero egiten duen ohiko batzarra egin zuen. Bertan, beste zenbait gaien artean, datorren urterako udal tasa eta zergen igoera tratatu zen. Besteak beste, honako aldaketak onartu ziren:

Ibilgailuen, Ondasunen higiezinaren gaineko zergak eta Hilerriko tasa BGI.aren arabera igotzea, %1,7a. Tasa eta zerga hauek 2008ko-tik igoerarik gabe zeuden.

Zaborraren eta uraren kasuan, berriz, zerbitzu horiek izango duten igoera kontutuan hartuta, %10 igotzea erabaki da.

Bilkura berean, autodeterminazioaren aldeko mozioa onartzea erabaki zen. ■





# Jubilatu Eguna 2010

2010ko agorraren 26a.

**E**gun au gogoragarria izango da Itsasondoko jubilatuentzako, bada urteko festaz gañera, biltoki eder bat oparitu digute gure eginkizunetarako.

Ogeita amairu urte da, eten gabe, Jubilatuen eguna ospatzen degula, eta azken urtetan, agorren azken igandean; gañera, aurtengoa oso berezia izan degu, biltoki berria estriñatu degulako.

Goazen egun ortako ospakizunak adieraztea. Goizeko bederatzietan ekin zioten erriko sei txistularik goiz eresikin zer egunetan esnatu giñen adieraziz. Bide batez, dijoakie eskerrik beroena orrenbeste urtetan, auek ere utsegin gabe, prest izan direlako beren gaitasuna azaltzeko eta beti musutruke. Amaiketan bildu giñan elizan, gure ildakoak gogoratuz meza santua eskeintzeko. Ondorenen, amaiketako, gure egontoki berrian, danak txunditurik, zeñen ederki jarri diguten ikusita. Ondorenen, Nautikora, emen urteroko janari goxo eta ugariak jatera. Jan eta edan bapo, ezen okerrik gabe, eta danak gustora. Aurreko ekitalditako kopururik ez dago jakiterik, asko izan zirela besterik, bañan jaleak kontatzen dira. Aurten, orain arteko gutxiena izan gera, bañan ala ere 70 jubilatutako bagian.



Egun pare bat lenago, usuarioari jarraituz, etorri eziñ zuten gaxoei bidali zitzaizen opari gogoragari bana.

Lenago esan det egun berezia izan degula batez ere egontoki berriengatik. Udalak, udal etxeari berritu bat eman eta zizku berriak egokitzeko asmon dagoenez, bada denbora pixkat azaldu zigula beren bearretarako eroki izango litzekela genduken lokala eta 23 urten gozatu deguna utzi eta orain eman digutenera aldatzea. Erakutsi ziguten eginda zeukaten zirriborroa eta gure iritziak azaldu giñuzten. Azkenean, guk uste baño askoz obeto eta ederragoa geratu zaigu.

Lokala, neurritz, lenagokon bikoitza da; komunek oso erokik, elbarrik ere oztoporik izan ez dezaten. Sukaldeko altzari eta gaur eguneko tresnaz ondo ornituta.

Azkenik batzorde billeratako oso gela txukuna jarri digute.

Orain ez daukagu aitzakirik besok tolestatuta egoteko. Datorren urte asieran izango degu Bizinaren batzar nagusia. Orri baten bitartez deituak izango dira orretara 109 bazkideak, baño aldizkari onen bitartez DEI BEREZI BAT egitea ausartuko naiz oraindik bazkide ez direnei, denok alkartuta, gure elkartearen egitekoak ugaritu ditzagun eta elkarte bera indartu dezagun. Denontzako lekua izango dan elkarte egin dezagun. ■

**Jubilatu bat**



"Bizi-Nai" elkarte berriaren inagurazioa.



Aurtengo omendua: Jose Antonio Garmendia, Karmen Garmendia, Jesus Aranburu, Simona Iturrioz.

# Gure artistak honela ikusten dute mundua




Hauek gure sinadurak dira



Margoekin esperimentatzen ari gara



Forma eta koloreekin gozatzeko ari gara




Hauek gure sinadurak dira



Marrazki honetan denok hartu dugu parte



Elkarrengandik asko ikasten dugu



Hauek gure sinadurak dira



Gure gelako neska-mutilak marraztu ditugu



Egun eguzkitsu batean marraztu genuen



Itsasondoko herri eskolako 2-3 urte bitarteko haurrak.

## Itsasondoko HHko ikasleak lanean dabiltza beren artelanak eginaz

Itsasondoko Herri Eskola handitzen ari da. HHko 2 urteko gelako ikasle kopurua begiratzea besterik ez dugu. Gaur egun, 10 berri matrikulatu zaizkigu, eta zenbaki horiek pozgarriak eta itxaropentsuak dira.

Bestalde, eskola bezala, hainbat proiektuetan sarturik gaude: "Adin Aniztasuna", "Elkarbizitza", "IKT", Agenda 21... Azken proiektu horretan, 6 urte daramatzagu lanean. Bertan, gai desberdinak landu izan ditugu: hondakinak, ura, mugikortasuna, eta aurtentzen, biodibertsitatean murgilduko gara.

HHko ikasleak, hau da, 2-3-4-5 urteko ikasleek honako marrazki edota artelanak egin dituzte, beraien inguruko errealitatea nola ikusten duten adierazteko. Beren bizipenen bitartez, kolore eta forma ugari erabili dituzte. Eta horrela ikusten dute mundua. ■



# ATXIKIMENDUA zer da? Nola ematen da?

**Ikasturte berriari martxa hartuta, artikulu honetan atxikimenduz hitz egitea iruditu zaigu egokien. Ikasturte hasieran, haurreskolako sarreran haurrak negarrez ikustea izaten da ohikoena: bai guraso edo arduradunek haurra bertan uzten duten momentuan, bai egunean zehar ere. Baina hori zergatik gertatzen da?**

**B**i pertsonen arteko lotura afektibo iraunkor eta luzeari ATXIKIMENDUA deitzen zaio. Atxikimenduz lotutako haurrak zein helduak segurtasun oinarri bat aurkitzen du beste pertsonarengan. Hortik aztertzen du mundu fisiko eta soziala, baina aldi berean, aterpea eta kontsolamendua ere bada antsietate, tristura eta beldur egoeretan, eta lasaitzen laguntzen dio.

Haurrak fase desberdinak pasatzen ditu jaiotzen denetik 9. hilabetera arte, gutxi gorabehera:

1. Lehenengo fasea: haurra jaiotzen denetik 3 hilabete bete arte. Tarte horretan zentzumenei esker informazio ugari jasotzen du haurrak eta erreferentziako pertsonaren usaimena eta ahotsa ezagutzen ditu, baina ikusmenarekin ez ditu bereizten ezagun eta ezezagunak. Oso garrantzitsua da ukimena eta kontaktu fisikoa harremana sortzeko lehen fase honetan. Elikatzeko garaian ere, harreman oso berezia sortzen da ukituz, hitz eginez, usaimena garatuz, e.a.
2. Bigarren fasea: 3-7 hilabete artean ematen da. Atxikimendu irudia antzematen du, nahiz eta arrotzak ez dituen baztertzten oraindik. Ikusmena garatua dago eta esplorazio jokabidearen agerpena ematen da.
3. Hirugarren fasea: 7-12 hilabete artean ematen da. Adin horretan lotura afektiboa irudi espezifiko batekin egiten du, beste edozein pertsonarekin trukaezina izanik.

Haurrak atxikimendu irudia bereganatzeko erabiltzen dituen jokabideak negarra, irribarrea, zizakadura, erreferentziako pertsonari jarraitzea eta helduek izango dira. Jokabide horren aurrean, helduak disponibilitatea, koherentzia eta sentsibilitatea agertuz gero, haurrak atxikimendu segurua eraikiko du.

Haurrak haurreskolara etortzen direnean, banaketa bat ematen da. Haurrak uste du heldua ez dela etorriko bere bila eta horrekin beldurtu egiten da. Banaketa horren erantzunak desberdinak izaten dira: loa galtzea, negarrak, ihes egitea, heldua jarraitzea, etsipena, beldurrak azaltzea, antsietatea...

Haurrak fase desberdinak pasako ditu. Protesta aldia ematen da, atxikimendu irudia berreskuratzeko haurrak duen jokabidea negarrarena da. Etsipen aldia ere izango dugu, erreferentziako pertsona ez duela berreskuratu sentitzen duena. Eta bestela, atxikimendu haustura izango da, badirudi haurra interesa galtzen hasten dela erreferentziako pertsonarekiko eta berarekiko desapego emozionala hasten da. Kasu horretan, haurrak bakarrik gelditzeko beldurra sentituko du.

*Zein da, beraz, hauraren hobe beharrez banaketaren aurrean hartu beharreko jokamoldea?*

Atxikimendu transferentzia: haurrak, haurreskolara etortzean, erreferentziako pertsona batetik besterako transferentzia egingo du. Horregatik oso garrantzitsua da haurrak gertutasuna sumatzea bere ama (edo heldua) eta hezitzaileen artean. Banaketa ematen denean sentitzen den antsietatea gainditzeko, giro lasaia, ziurra eskaini behar dugu. ■



**Joxe Antonio Garmendia**

## Herrian geratzen den azken abeltzaina

*Gure herriko Joxe Antonio abeltzainak bizitza osoa darma baserritik bizitzen, eta horrek ekarpen ugari egiten dizkio ingurugiroari, garapen jasangarriari eta gizarte aniztasunari. Baserriarren bizitza oso gogorra izan da betidanik, eta Joxe Antonio saiatu da bertako errealitate krudela gure herritarrei gerturatzen, beraiek ere jakin dezaten zein egoeratan dagoen gaur egungo baserria.*



Jose Antonio, Iraola baserriaren atarian.

**Nola ikusten duk baserriaren egoera aurreko garaietatik oraingoetara?**

Gure gazte denbora oso diferentea izan huan, garai batean lan egiteko postura esku lanabesak (sega, aitzurra, sardea...) eta animaliekin (gehienbat zaldia) lagundurik izaten huan, esku lan izugarria izaten zen. Garai haietan aurretik zetorren postura berdintsuan lan egiten huan, aldaketa handirik gabe.

**Noiz hasi huen aldatzen?**

Orain dela berrogei edo berrogeita hamar bat urte, segadorak eta azaltzen hasi hituen, eta hasieran nahiko korriente edo normalak izan arren, esku lana izugarri errazten zuten. Pentsatu, ordu-arte, gure aitari gustatzen zitzaion goizeko seietan sega hartu eta belarra mozttera joan, goiza horrela pasatzen genien eta bazkaldu ondoren belarrak astindu, bildu, meta ensilatu... bukatzen ez huen lantegia zian. Horrela makinaria sartzen hasi huenean, gauzak errazten joan hituen.

**Esku lana gutxitzen joan huen?**

Pixka bat bai, baina orain belarra soberan ibiltzen diagun bezala orduan falta izaten genien eta belardi batzuetan segadorarekin lan egiteko nahiko gaizki genuenez, eskuz aritzen gintuan.

Handik dozena erdi bat urtera, Suizatik segadora berri batzuk sartzen hasi hituen, baina horiek ere beste aldaketa batzuk eskatzen zizkiaten.

**Zein aldaketa?**

Segadora horiek atzetik beste makinari bat eskatzen ziaten, auto-kargadorea, trakto-rea... eta horrek beste inbertsio batzuk eskatzen zizkian eta momentu hartan erabaki nian, inbertsio garrantzitsua egitea makinari horiez gain. Ordura arte, ukuilu zahar bat genien sei zazpi behierekin, eta horiek nahiko justu zeudean, horrela ukuilu berri bat egiteko proiektuan sartu ninduan.

**Hasiera haietan beste abererik izan al zenuten?**

Gauza gutxi, normalean behiekin lan egiten genien beti.

**Eta nekazaritza aldetik?**

Garai haietan soroan lan asko egiten genien, batik bat babarruna, artoa, arbia... baina ukuilu berria egiteko ametsa aurrera eramatea erabaki geniane, soroko lanak alde batera utzi genizkian.

**Ukuilu berria?**

Bai, orduan ukuiluetan ibiltzen ziren albaitari batzuk burua berotu ziguten (asko ez genuen behar) eta sistema berri bat ipini nahi genien, rejila bidezkoa. Ordura arte azpiak orbela eta garoekin egiten genizkian, eta ondoren, simaurra sardearekin ateratzeko lan neketsua izaten huen. Sistema berri hori, leku ezberdinetan ikusten aritu gintuan, gainera simaur likidoa erabil zitekean eta abantaila ugari eskaintzen zizkiguan.



**Zenbat abel bururekin hasi hintzen?**

Hasieran, hogeita hamalau behi eta gizentzeko txekorrek ipini genizkian, esnea ekoizteko asmoarekin, bigak Danimarkatik ekarri genizkian. Aipatzekoa duk momentu hartan, abeltzain batzuk bultzatuta, behi-azienda saneatzeko asmoz kanpainak egiten hasi gintuan Diputazioaren laguntzaz eta asko hobetu huen ganaduaren kalitatea ikuspegi horretatik.

**Beraz esne behiak?**

Bai, Frisona arrazakoak. Hasierako urteetan lotuta edukitzen genizkian, baina abantaila gutxi eskaintzen zizkiatenez, aske edukitzea erabaki genian.

**Eta behiak jezteko sala?**

Ondorengo inbertsioa izan huen. Horrek ere lana asko erraztu ziguan eta esne ekoizpen handietara iritsi gintuan. Hasieran, esnea inguruan saltzen genian: Itsasondo, Ordizia, Lazkao... baina salmenta jaisten joan, eta azkenean, esnezaleari saltzen genioan. Diru aldetik gutxiago irabazten genian, baina esnea jasotzeko kamioia baserri bertara etorri eta esnea, zisternatik zuzenean hartzen zian.

**Baina orain haragitarako behiak dauzkak?**

Bai, Limousin arrazakoak. Lehen aipatu dudan kanpaina batean, txekor bat txarra atera zitzaiguan eta abere asko kendu behar genituenez, haragitarako behietara pasatzea erabaki nian. Lehenengo, tratante baten bitartez hamaika inguratu genizkian Frantziatik eta ondoren, bertara joanda, beste hamaika geok ekarri genizkian. Oso ganadu ona ekarri genian.

**Nabaritu duk diferentziarik esne behietatik haragitarakoetara?**

Bai, handia. Esne behiekin lan egitea oso lotua duk, beraien baitan hago egunero eta animalia bezala ere ahulagoa duk, esate baterako behien erditze garaian, mamitisarekin, hesteetako arazoak... orokorrean gehiago atenditu beharreko azienda duk. Haragitarako behi hauek aldiz, oso arazo gutxi eman zidatek, horiek denbora asko ematen diate larrean eta horrek beste gauzetarako denbora uzten dik. Horientzat egin genian inbertsiorik handiena, belar bolak egiteko makinarena izan huen.

**Haragitarako behiekin txapelketaren batean parte hartu al duk? Eta irabazi?**

Hemen estatu mailan Limusin arrazetan, Salamankan egiten duk txapelketarik garrantzitsuena, eta bertan askotan parte hartu diat, eta baita txapelketaren bat

irabazi ere. Beste leku batzuetan ere egiten dituk txapelketak, esaterako Trujillon, Teruelen, Madriden, Errioxan, eta hemen ere bai, Tolosan.

Txapelketa horiek prestigio handia ematen zioke irabazleari eta horren ondorioz, bigak bizitarako, prezio onean saldu ditzakek. Hortik ere diru pixka irabazten genian.

**Txapelketa horietan zein mailatako behiek parte hartzen diate?**

Bigatan: 8-12 hilabetekoak, 12-15, 15-18 eta umea egin berriak, 2 urtekoak, 3 urtekoak.

Behi zaharrak: 2 tanda.

Zezenak: 12, 15, 18 hilabetekoak, 2 urtekoak, 3 urtekoak, 4 urtekoak, 5 urtekoak. Lehen Euskal Herritik joaten huen ganadurik hobereana, baina orain asko berdindu duk maila.

**Eta diru aldetik diferentziarik nabari duk lehendik orainera?**

Egia esan situazioa oso-oso kritikoa duk, gauzak oso gaizki zeudek. Pentsatu, bai haragiak eta bai esneak orain dela hogeita hamar urte bezalako irabazia ematen duela, baina gastu guztiek gora egin ditek: animalien pentsuak, makinariak, elektrizitateak, telefonoak, gasolioak... eta baserrian ez zegok margenik etekineterako, horregatik situazioa oso larria duk. Gauzarik larriena pentsuarena izan da, pentsatu orain dela bi urte 30 pezeta/kg egin zuen eta esaten genuen "a ze prezioa", ondoren golpean 40ptara igo huen, gero 38ptara jaitsi eta azkenik orain 50pta/kg ordaintzen ari gaituk, ezinezkoa duk errentagarritasunik edukitzea. Lehen ez genian diru askorik edukitzen, baina inbertsioak eta kredituak ordaintzera iristen gintuan, baina orain ezinezkoa duk. Orduan beste aukera bat egurrarena izaten huen, baso bat atera eta diru pixka irabazten huen, baina hori ere, Landetan haizeak botariko egurra dohainik ateratzen ari dituk eta momentu honetan egurrak ez zeukak balorerik.

**Eta kanpotik datorren haragia?**

Izugarrizko kaltea egiten ziguk. Europako komunitate elkargoan sartu diren azken lau edo bost estatuek, laguntza ugari zeuzkatek eta huskeri batean esportatzen diate txekor haragia Europara eta guk horrekin ezin diagu lehiatu. Gainera hemengo negoziante batzuk kamara handiak ipini dizkiate haragi hori banatzeko.

**Hemen ez zegok laguntzarik?**

Bai, baina gutxi. Orain baserrira sartu nahi diaten gazte askok, inbertsioari aurre egiteko laguntzak behar beharrez-



1993.urtean Txuekaren eskutik Abelgorri Lehiaketaren I. Saria jasotzen.



1985.urtean Ganadu lehiaketan irabazitako I.Saria.



Jose Antonio bere ikuluan.



1980.urtean Dinamarkatik ekarritako esne behiak loian.



Jasotako zenbait garaikur.

koak dizkiate eta askotan bi urte itxaron behar izaten diate laguntza hori ikusteko. Gainera momentu honetan, dirurik ez dagoela esaten zigutek.

**Honentzako soluzioa?**

Nik ez zioat soluziorik ikusten. Adibidez Frantzian ganaduzaleek beraien pentsua ekoizten diate eta hori gastu murriztapen nabaria duk, hemen aldiz ganaduzaleok pentsua erosi beharra diagu eta horrek suposatzen dik, beti besteen menpean egotea.

**Orain Goierrin, baserriar asko bai haragia eta bai esnea zuzenean saltzen ari dituk, zer iritzi dauk horri buruz?**

Beno aukera izan zitekek, baina haragiaren kasuan jende asko egunean egunekoarekin bizi duk eta ez zegok prest haragi kantitate handiak erosteko. Gainera, soluzioa izanez gero, honezkerok arrankatu behar zian. Beste aldetik, salmenta zuzenarekin, harakinari kompetentzia egin diezaiokek eta txekorra kentzeko garaian, harakinak hori kontutan edukitzen dik.

**Adibidez alarma sanitario bat gertatzen denean, jendea bertakoa erosten saiatzen duk?**

Bai, baina jendeak prezioari begiratzen zioke eta ez kalitateari. Kanpotik ekarritako haragi horrekin lehiatzeko, prezioa gehiago estutu beharko litzateke. Nire kasuan, ekoizten dudun haragi guztia,

Eusko Label zigilua zeukak eta zigilu horrek Kontsumitzaileari kalitate-maila handia bermatzen zioke, produktuen jatorria eta benetakotasuna segurtasun osoz identifikatzeko aukera emanez, ekoizleen lana defendatuz, Kalitatezko ekoizpena sustatuz. Eusko Labela duen produktuak, arautegi tekniko baten mende zegok eta hura ondo betetzen dela bermatzeko, hainbat kontrol egin behar izaten dizkiagu.

**Sagardotegietako haragia bertakoa da?**

Orokorrean ez, guk ere ganaduzale koadrilan joateko ohitura diagu, bertako giroagatik eta askotan esaten diagu, nola gure etxeko haragia beste batzuei erregalatzeko ari gaituan, eta gero, sagardotegietan, kalitate baxuagoko haragia jaten diagu.

**Zein duk egun normal bateko errutina?**

Momentu honetan hamar behi eta hamaiki biga dizkiat. Lan ezberdina duk udaran eta neguan, udaran animaliak ordu asko pasatzen dizkiate larrean eta belarretan bolak egiten aritzen gaituk, neguan aldiz ukuiluan egoten dituk. Normalean 7:30-8:00ak aldera jaikitzen nauk eta animaliei jana ematera joaten nauk, ondoren azpiak txukuntzen zizkieat eta orain bezala, bigak larrean bazeudek, janari pixka ematen zieat, ondoren gosaldia eta beste zereginak egiten dizkiat.

Dagoen panorama ikusita, dena uzteko intentzioarekin nagok.

**Baserri mundukoa ez den jendea esplikatuko al hioke zer den txahala, biga...?**

Abeltzain ona izateko bere ganadua ondo ezagutu behar duk eta oso garrantzitsua duk jakitea, aurrerako utzi behar duan aberea aukeratzen.

Jaio berri den abereari, txahala esaten zioagu eta hau arra bada "ixkoa" eta emea bada "urritxa". Normalean emeak izaten dituk aurreko. Txahala 6 hilabete arte, amaren esnea hartuz egoten duk, ondoren pentsua jaten hasten dituk etorrera hobea izan dezaten. Momentu horretan, emeei bigak esaten zaie eta denak batera jartzen dira. Aurrerako uzten ez direnak, urtebete eta hiru hilabeterekin hiltegitara eramaten dituk. Aurrerako direnak, bigak, 18-20 hilabeterekin hazia jarri edo zezena botatzen zaiek. Umea egiten diaten bigak, behien sailera pasatzen dituk.

Nire kasuan bietatik erabili diat, batetik zezenak, susa dagoen behia berehala estaltzen dik, bestetik haziarekin, zailagoa duk, susa dagoen behia atzeman behar dualako eta denak ez dituk nabarmenak izaten. Etxeko zezena genetikoki ona izatea, oso garrantzitsua duk.

**Ba al duk anekdota edo kuriositatearik kontatzeko?**

Esaterako, behin Teruelgo feri batetara bi ixkorekin joan gintuan, mugimendu gutxi zegoan, ganaduzale gehienak mistoak hituen eta feria desegiten ari huen momentuan bi ganaduzale azaldu hituen, gu desesperatuta geundean eta azkenean tratua itxi eta arratsaldeko lau-retain bapo bazkaltzera joan gintuan. Askotan gertatu zaiguk animaliekin etxera bueltatu beharra.

Beste batean, Frantzian animalia enkanter batera ganaduzale koadrila joan gintuan, oso eguraldi txarra zegoan, aldai-zea, ebie... badaezpada ere oilasko kazuela bat eraman genian. Berandu atera gintuan eta hirurak aldera etxera bidean, ukuilu batean sartu eta kazuela jaten hasi gintuan, baina ondoren jabea azaldu eta kriston iskanbila mon-tatu ziguan, kosta zitzaiguan gizona aplakatzea, baina azkenik utzi ziguan bazkaltzen.

**Eta orain bukatzeko hiru galdera motz.**

**Zer duk gustukoena?**

Nire afizio berdineko ganaduzaleekin eginitako eskurtsioetan asko disfrutatzen diat.

**Zer botatzen duk faltan?**

Ezer ez. Besteek egindakoa txarki dagoela esatea erreza duk.

**Inoiz izan duan amets bat?**

Gazte denboran, ganadu selekzionatu batekin hobekuntza baten aritzea izan zuan, eta neurri batean bete diat. ■



## Haur, nerabe eta Gazteria Saila

### EKINTZAK

Itsasondoko gaztelekua indarra hartzen ari da poliki-poliki. Azken hilabete hauetan, ekintza ugari egin ditugu. Makillaje ikastaro arrakastatsuan, 8 neskek parte hartu zuten, eta arratsaldean zehar, dotore jartzeko hainbat teknika ikasi zituzten irakaslearen eskutik. Jolas kooperatibo tailerra ere gustuko izan zuten eta bertan, haurrekin egiteko hainbat jolas ikasi zituzten.

Urriari ospatu den Goierri kolore ekimenean ere parte hartu dute gure gazteek. Antolatatu zen mundualitorako talde bat atera zen Itsasondotik, eta garaile atera ez baziren ere, arratsalde ederra pasa genuen.

Horrez gain, Euskal dantza ikastaroa ere jarri da martxan, eta bertan, 8 nerabeek hartu dute parte. Larunbatero elkartzeko dira eskolako aterpean. Ikastaroa azaroan hasi zen eta maiatzera arte iraungo du. Euskal dantza desberdinak ikasiko dituzte eta gero herriko ekitaldi desberdinetan emanaldiak egingo dituzte. Esan behar da ikastaro hori ez dela gazteentzako bakarrik, herriko edozeinek parte hartu dezake eta izena emateko aukera dago oraindik.

Gazteek, ordea, lan ere egin dute. Izan ere, euskara asterako antolatu den ekintzetan ere protagonista izan dira eta hainbat ekintzen antolaketa lanetan burubelarriri ibili dira; jolasak prestatu, tailerrak pentsatu... Beraien aldetik ere laguntza jasotzen dugu eta begirale lanetan ibiltzen dira gaztelekuko gazteak.

### GABONAK

Gabonetan, berriz, haurrentzat eta nerabeentzat ekintzak izango dira. Hauxe da egitaraua:

Abenduaren 27,28,29,30ean eta urtarrilaren 3,4,5ean, 10:00etatik 12:30era tailerak gaztelekuan.

7-12 urtekoentzat Skate ikastaroa Mikel Zurutuza herritarraren eskutik.

Abenduaren 29an eta urtarrilaren 3an, helduentzako txuri urdinera eta zinera irteera.

Egun horietan, tailer desberdinak izango dira, Zumalakarregira irteera egingo da eta helduenekin Donostian arratsalde pasa ere egingo da. Beraz, aspertzeko betarik ez dute izango. Ekintza horietan guztietan nerabeen laguntza jasoko dugu eta beraiek egingo dituzte begirale lanak.

Izen emate epea abenduak 17an bukatuko da eta interesa duenak udaletxean utzi behar du taula haurren datuekin beteta.

### EMANZIPAKZIO

Emanzipakzio, nerabeei zuzenduriko ekipamenduekiko azken fasean dauden, gazteen gizartekintza prozesuekiko emantzipazioa bilatzen duen proiektu berritzailea da. Proiektu horrek gazte horien emantzipazio ibilbidean lagungarri izan nahi du; norberaren ekimenen garapenean, gazte taldeak elkarrekin bilakatzera gidatuz, gazteak hiritar parte-hartze aktibora bultzatuz eta epe laburreko motibazioen aurkikuntzan.

Itsasondoko gaztelekua aukeratua izan da proiektu berritzaile hau aurrera eramateko. Horren bidez, gure gazteek formazioa jasoko dute eta beraiek herrian inpaktua izango duen eurek diseinaturako proiektu bat prestatu eta garatuko dute. Bai Udala bai gazteak oso gustura agertu dira, aukera paregabea delako gazteek herrian zer-bait egiteko. Horretarako laguntza teknikoak zein ekonomikoak izango da eta gazteak oso motibatuta agertu dira.

### ITSASONDO, HERRI TXIKIEN EREDU

Itsasondon, gazteleku eraikitzearen prozesua oso luzea izan da. Bidean zailtasun, oztopo eta arazo ugari sortu dira. Hala ere, horiei guztiei aurre egiten jakin izan dugu denon artean, eta esan daiteke, gaur egun, Itsasondoko gaztelekua bere tokia hartzen ari dela herrian eta nerabeen artean. Gainera, etorkizunean indartu egingo dela uste dugu, nerabe kopurua handitzen ari baita.

Prozesu hau guztia, Aldundiaren iritzi, eredu bilakatu da. Horregatik, gure bide berdina egiteko, oraindik hasieran dauden herri txiki askok gure berri jakiteko helburuz, azaroaren 16an, herri txikiekin bilera egin genuen. Bertan, prozesu guzti horren ibilbidea azaldu zitzaion eta gaztelekua ikusteko aukera izan zuten. Bertara, Uli mankomunitatea, Amezketeta, Olaberri, Altzo, Albiztur, Arama eta Tolosadeko herri txikietako ordezkariak etorri ziren eta hemen egindako lana txalotu zuten.

## Oporraldiak

### IMERSO

Imersok pertsona Nagusien ongizatea bultzatu nahi du eta, horretarako, hainbat bidaia antolatzen ditu, pertsona nagusiek ongi merezitako oporrak goza ditzaten. Hainbat motatako bidaiak dituzte:

- Egonaldiak kostaldean, atseden hartzeko eta erlaxatzeko.
- Kultur bidaiak, Espainiako historian eta artean murgiltzeko.
- Naturako turismoa, toki berezietatik ibilbideak eginez.
- Trukaketak beste herrialde batzuekin.

### PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Espainian bizi bazara eta Opor Programa honetan parte hartu nahi baldin baduzu, honako betekizun hauetakoren bat bete beharko duzu:

- 65 urte baino gehiago izatea.
- Pentsioen Sistema Publikoko erretiroagatikoko pentsioduna izatea.
- Alarguntasunaren ondorioz pentsiodun izatea, 55 urte edo gehiago izanik.
- Ezintasunaren, beste pentsio batzuen edo aurre-jubilatu izatearen ondorioz pentsiodun izan eta, kasu horietan guztietan 60 urte betetik izatea.

Pentsiodunaren bikotekidea berarekin batera joan ahal izango da. Bikotekideari ez zaizkio aipaturiko baldintza horiek eskatuko.

Gutxienez %45eko urritasuna duten seme-alabek ere parte hartu ahal izango dute, urritasun horrek bidaiatzeko aukera ematen badie, eta gurasoekin batera bidaiatzen badute eta logela beraiekin konpartitzen badute.

Beti ere, bere buruaz arduratzeko gai izan behar dute, eta ez dute izango hoteletako ohiko elkarbizitza saihestuko duten portara arazorik.

### ESKAITZEN DIREN ZERBITZUAK

Opor txanda batean parte hartzeak honako hau biltzen du:

- Joan etorriko bidaia programaturiko garraioan, bakoitza bere probintziako hiriburutik jomugako hotelera eta itzulera, garraiorik gabeko bidaietan izan ezik.
- Ostatua pentsio osoko errejimenean, logela bikoitzean edo banakakoan, Imersok aukeratu dituen hoteletan, Pariseko jomugan izan ezik, izan ere bertako ostatu errejimena pentsio erdia baita.
- Taldearen aseguru poliza.
- Gizarte Segurantzak eskaintzen duenaren osagarri izango den osasun zerbitzua, hotelean bertan, atzerriko bidaietan, kultur bidaietan eta natura turismoan izan ezik.
- Animazio programa jomuga guztietan, kultur bidaietan eta natura turismoan izan ezik. ■

## Birziklapena

1.

Zer iruditzen zaizu birziklapena?

2.

Zuk etxean birziklatzen al duzu? Zer da gehien kostatzen zaizuna? Organikorik birziklatzen al da zure etxean?

3.

Edukiontzi guztiak ezagutzen al dituzu? Ba al dakizu zer den konpostaia?

4.

Zer neurri proposatuko zenuke sortzen dugun zaborra gutxitzeko? Zer iruditzen zaizu atez atekoa?



### Kontxi Rodriguez

1. Beharrezkoa dela.
2. Bai. Ez daukat arazorik birziklatzeko, eta bai, organikoak ere birziklatzen ditut.
3. Edukiontzi guztiak ezagutzen ditut eta badakit zer den konpostaia.
4. Ez dago gure esku bakarrik, enbalaje gutxiago erosi beharko genuke. Ez dut gehiegi ezagutzen sistema hori eta nire zalantzak ditut sistema hori garbia izango ote den.



### Mª Tere Lasa, Gertrudis Arza eta Maria Arza

1. Oso ondo iruditzen zaigu birziklapena eta guztia apartatzen dugu.
2. Bai, gauza batzuekin dudak izaten ditugu, adibidez intxaur azalak... Organikoak ere birziklatzen ditugu.
3. Bai, ezagutzen ditugu. Bi gazte etorri ziren oso jatorrak eta guztia azaldu ziguten.
4. Ez dakigu. Ez dugu oso ondo ezagutzen sistema, baina ez zaigu asko gustatzen, ez dugu atsegin zaborra atean izatea.



### Ainhoa Barandiaran

1. Oso ondo iruditzen zait.
2. Bai, birziklatzen dut. Ez daukat arazorik zaborrak birziklatzeko. Organikorik ez dut birziklatzean etxean, baina bai baserrian.
3. Edukiontzi guztiak ezagutzen ditut eta badakit zer den konpostaia.
4. Ez dakit, baina iruditzen zait enpresa eta fabrikateek plastiko eta paper gutxiago erabiltzen hasi beharko luketela. Ez dut sistema hori ezagutzen.



### Milagros Pascual, Agapita Saralegi eta Lucia Iraola

1. Birziklatzea oso ondo iruditzen zait.
2. Birziklatzen dugu eta gauza bakoitza bere tokian jartzen saiatzen gara. Oso erraza iruditzen zaigu birziklatzea eta organikoa ere ezagutzen dugu.
3. Bai, ondo ezagutzen dugu eta badakigu zer den konpostaia.
4. Ez, eta ez dugu oso ondo ezagutzen. Informazio gehiago beharko litzatekeela iruditzen zaigu.





Izarreko Fabrika Zaharra, bagonetak eta arbel-pilak

Berrogei urte igaro dira Itsasondoko azken arbel-fabrika itxi zutenetik; hala eta guztiz ere, arbelgintzak bere oinatza utzi du herrian eta herritarrengan. Aurreko artikuluko batean aipatu dugun legez, Itsasondoko arbel-enpresetan egindako lanak aztarna nabarmenak utzi ditu Itsasondon, bai bere mendietan eta kaleetan zehar, bai itsasondoarren oroitzapenean. Atal honetan, herriko paisaian oraindik begi bistan dauden aztarna materialen gainean arituko gara; memorian utzitako arrastoa, berriz, hurrengo batean izango dugu hizpide.

## Arbelaren ondarea (III)

Itsasondoko arbel-industriarekiko lotura izan du, mende luze batean zehar. Hemeretzigarren mendearen bukaeran –1860. hamarkadan, hain zuzen ere– hasi zen herrian arbelaren ustiapena, eta joan den mendeko 70.eko hamarkadan itxi ziren azkeneko meategiak eta tailerrak. Arbel-industriaren garapenak eta urteetan barrena izandako produkzio-prozesuek beren isla eduki dute herriko hirigintzan, baita inguruko paisaian ere. Izan ere, arbelgintzaren historia kontuan hartu gabe, ezin da gaur egungo Itsasondo ulertu.

Beko Kalen eta Kale Nagusian arbel-enpresetako tailer eta bulegoen eraikinek dira; horra hor pizartegiek utzitako arrastorik ikusgarriena, herriko kaleetan oraindik ere agerian dagoena. Ibarreko tailerrak, Zentral etxea, Fernando Enea (Sarasolatarren bulegoak, gerxeago Pension Izaskun izan zen eraikina), Beheko Fabrika... Tamaina txikiko eraikinak dira, etxebizitzekin nahastuta daudenak. Aurrekoan azaldu dugun moduan, Itsasondok ez zeukan lekurik fabrika handiak eraikitzeko; hala, herriko lurraldearen

okupatzea etena izan zen, enpresek gune ezberdinetan banatu baitzituzten beren aktibitateak. Gaur egun ere, Itsasondoko hirigintzan sakabanatuta agertzen zaizkigu eraikin industrialak, itsasondotarren historiaren lekuko.

Haien artean, Altuna enpresaren Beheko Fabrika da, ziur aski, guregana ailegatu den adibiderik zaharrena. Joan den mendearen hasieran eraiki zuten, enpresaren meategien ondoan (hau da, Azubian bertan) egiten zen lana osatzeko. Bere teilatuak, arbelezko lauzek estalita, oraindik ere adierazten du arbelgintzarekin eduki duen lotura, gaur egun beste erabilera batzuetarako erabiltzen bada ere.

Beste eraikin batzuek, berriz, produkzio-prozesuaren aldaketak agertzen dizkigute, eurek ere prozesu horren batera aldatu baitira. Zentral Etxearen adibidea aipatuko dugu, oso adierazgarria da eta. Sarasola enpresakoek Gerra Zibilaren ondoren eriki zuten, 1940.eko hamarkadan, energia elektrikoa sortzeko. Horretarako, gerra osteko erregairik eza zela eta, gasogeno handiak behar



Echeverria y C.ª (gero Altuna) enpresaren Beheko Fabrika, egun Beko Kalen dirauena. (Fototeca Kutxa, sig. 414775-632)



Beheko Fabrika, gaur egun.



Mendibilgo "gaztelua" eta bagonetetarako herresta-garraioko bidea.



Mendibilgo "gaztelua"



Sarasolatarren Zentral Etxea, gasogenoak zeuzkan garaian.



Zentral Etxea, gaur egun.

ziren, "gas pobre" zeritzonarekin funtzionatzen zutenak. Estructura handi horiek edukitzeko egin zuten Zentral Etxea, eta horrexegatik da hain altua bere beheko pisua. Gerxeago, energia lortzeko arazoak arindu ziren; gasogeno handi horiek ez ziren jadanik beharrezkoak. Orduan, eraikinaren erabilera aldatu zen: zentral termikoa izatetik meategien eta fabrikaren tresneria konpontzeko tailerra izatera; horrela aprobetxatu zuten gasogenoak edukitzeko gune handi hori.

Hirigunean bertan antzinako arbel-industriarekin lotutako eraikinek badiraute, zer esanik ez inguruko mendiei buruz. Oria ibaiaren ertz bitan, mendi magal aldapatsuetan, iragan industrial horren aztarren ugari kontserbatzen dira: meatze-sarbideak, galeriak, arbel-pilak, harrobiak, eraikin industrialen hondakinak... Azubia, Malkorra eta Izarre arrastoz josita daude, gaur egun ere, meatze-aktibitatearen aztarnez beterik.

Horien artean, azpimarratzekoa da Malkorran, Mendibil baserriaren ondoan, kokatzen den "gaztelua". Egurrezko estructura hori, egun estalia galdu duena,

Sarasola enpresaren meategiak eta fabrika lotzen zituen garraio-azpiegituraren aztarnarik nagusienetakoa da. Igogailu baten antzera funtzionatzen zuen "gazteluak": meategietatik ateratako arbela ekartzen zen horraino bagonetetan, herresta-garraioko bide batean zehar, eta gaztelutik jaisten zen Beko Kaleraino. Han egun irauten duen Beheko Zulo deritzan galeriatik eroaten zen arbela Pizarrerías Sarasola fabrikaraino. Gaur egun kontserbazio-egonek txarrean badago ere, Mendibilgo "gazteluak" elementu ikusgarria izaten jarraitzen du, Malkorako meatze-paisaia osatzen duena.

Izarre ere meatze-eremua izanik, bere paisaian iragana industrialaren aztarna ugari dira. Tipologiari dagokionez, elementu anitzak dira, erauzketarekin eta garraio-sistemarekin ez ezik, arbelaren manufakturarekin ere lotuak. Esaterako, ustiategiaren beheko partean Fabrika Zaharren hondakinak daude, meatze-sarbide baten ondoan. Arreta handiz ez badira aztertzen, garrantzi bakoak irudituko dira, agian, hondakinok; harrizko hormen aztarnek, baina, Itsasondoko historiaren zati bat kontatzen

digute. Fabrika Zaharrean arbel-arkatzak, "pizarrilloak", egiten zituzten. Eraikin txiki horren ondoan pilatzen ziren arbel-hondakinak, nekez bagonetek bidez garraiatzen zirenak; arbel-ustiapenak eraiki du, beraz, egungo Izarreko paisaia: magalen aldapak, bideak, antzinako meatze-estrukturen arrastoak... guzti horiek historia industrialaren ondorioak dira.

Aipatutako elementuak herrian irauten dutenen adibide batzuk baino ez dira, oraindik ere arbelgintzaren arrasto asko baitaude Itsasondon. Bere hirigintza eta paisaia osatzeaz gain, balore historiko handia dute, Altuna eta Sarasola enprekin lotuta baitaude. Are gehiago, aztarnok Itsasondoren paisai kulturalaren berri ematen digute; herriaren ondarea osatzen dute, ondare ezezaguna izanda ere. Beren era isilean, azken mendeetako historia, itsasondotarren historia, kontatzen digute. Horra hor ezagutzeko eta kontuan hartzeko arrazoirik garrantzitsuena: herriaren oroitzapenean baino ez dagoen historiari koherentzia eta bitzta ematekoa. ■

Ainara Martínez Maitia



# Autodeterminazio eskubidearen lehen hazia Itsasondon

Ondorengo lerroetan Mikel Aramendik sinatzen duen artikularen inguruan esan, Autodeterminazio eskubidea eta aldarrikapena gaur egun puri-purian dagoen gaia izan arren eta gutariko askok zerbait berria eta modernoa dela pentsatu, aspaldi, 1931.urtean hain zuzen ere, Itsasondoko herriak autodeterminazioaren aldeko autoa egin zuen. Azken finean Autodeterminazio eskubidea horixe bai da, herri bakoitzak eta bertako herritarrek munduaren aurrean nor izan nahi duten erabakitzeko eskubidea.

**1931**ko apirilaren 18an, igandez, zazpi itsasondotar haiek (bat Altzagan jaioa izateak ezer gutxi aldatzen du kontua) Udaltzatza berria osatzeko Kontzeju Zaharrean bildu zirenean, seguruenik izango zuten ekitaldiaren historikotasunaren sentipen apurtxo bat. Jakin jakingo zuten, behintzat, igarotako astea, aspalditik itxaron eta desiotakoa ez ezik, gerora luzaro gogoratu beharreko horietakoa zutela.

Aurreko astelehenean, apirilak 12, udal hauteskundeak egin ziren Itsasondon ere, aspaldiko partez; eta haietan irabazle izanak zilegitzuten zituen igandeko kargu hartze ekitaldi hartarako. Asteartean, Alfontso XIII.a erregeak Madriletik hanka egin zuenez, asteazke-



Jose Manuel Sarasola alkatea bere semearekin

nean Errepublika aldarrikatzen zen Estatu osoan, eta behin behineko gobernu eta agintari berriek hartua zuten estatu aparatuen kontrola. Ostegunean, eta premiatusun horren barnean, Itsasondon ere bere karguaz jabetu zen Manuel Sarasola alkate hautatua. Igandeko ekitaldiarekin eratzuten, hala ere, formalki Udaltzatza berria. Gizonezkoak (ezinbestez: emakumeek ez zuten botoa emateko eskubiderik; are gutxiago hautetsiak izateko), euskaldun hutsak eta adin bitartekoak ziren denak: bakarra zen 30 urtez azpikoa; 48 urte egitear izango zen zaharrena.

Testuinguru hartan, susma liteke ekitaldiaren amaieran, Udaltzatza kargutxo bakanak banatu eta gero, aho batez onartu zuten adierazpena -bere jatorrizko eran artikulatu honen alboan doana- aparteko gogoeta edo ameskizun berezirik gabe onartu zutela. Zorionez, esan beharko da (bestela, hura aldarrikatu zutenek izango zutelako nahigabe gehiago, izan zituztenez gain), bost urte beranduago, frankisten garaipenaren ondoren aginteaz jabetu zirenek ere ez zioten jaramon berezirik egin agiriari, eta Udalaren akta biltegian egon da, historialari garaikideen zain. Harrogiak izan gabe esan baitaiteke agiria historikoa dela, besteak beste gerora euskal politikagintzaren zutabe-tako bat izango zena (eta dena: ikusi besterik ez dago) hizpidera ekarri zuelako ofizialki: autodeterminazioa.

EAJren bitartez iritsia izango zen


adierazpena Itsasondora, lau egun lehenago, Errepublika aldarrikatu zeneko egunean bertan Donostiako Udaltzatza jeltkideen gutxiengoak osatzen zuten zinegotziek idatzi berbera aurkeztu baitzuten Gipuzkoako hiriburuan. Itsasondon, ordea, alkateak eta zinegotzi guztiek (haietako bi ez ziren orduan zuzenki nazionalistak; beste bostak bai) aho batez onartu zuten, Donostian ez bezalako ofizialtasuna hartu zuen adierazpenak.

Autore identifikagaitza duen baina kontzeptu politiko oso landuak barneratzen dituen agiri hori astebete gogoangarri hartan EAJk egin bide zuen *aggiornamento*-aren adibide paregabea litzateke. Aintzakotzat hartu duten historialariek ere (De la Granja, 2008) ez dute hartaz aparteko hausnarketarik egin gaurdaino; baina, egun haietako prentsa jeltkidean irakur daitezkeen beste ikuspegi batzuekiko aldeak deigarriak dira. Lehen monarkiarekiko indiferentzia nagusi zen lekuan, adibidez, euskal nazioaren askatasun politikoa *suntsitu zuen erregimena* zela esaten da; edota 1930eko abuztuaren 17ko Donostiako Itunean Kataluniarako hitzartutako autonomia eskatzen da Euskal Herrirako («proclamación de la República Vasca confederada con las demás Repúblicas Ibéricas», hitzez hitz), ondorengo urteetan gorpuztuko zen ildo autonomistaren aurrerapenean.

Baina, adierazpen haren beste osa-gaia, autodeterminazio eskubidearena,

genuen hizketa-gai. Orain hitzetik hortzera eta edonon entzun daitekeen esamolde hori ez zen batere ohikoa sasoi hartan. Are gehiago, esan daitezke 1931-04-18ko Itsasondoko Udaltzazarraren adierazpenekoa dela kontzeptu politiko horrek euskal (eta agian espainiar) politikagintzan duen lehen agerpen ofizial instituzionala. Ordura arte, oso kasu bakaretan aurki zitekeen, beti ere urrutiko lurralde eta arazoei egotzita, hizkera informatiboan. Horrela, 1920 inguruan, Irlandaren autodeterminazio eskubidea (eta hari buruz britainiar laboristek hartu zuten jarrera) hizpide izan zen une batez. Eta handik urte batzuetara, Tacna eta Aricako auzian ere aipatu zen berriro. Baina, gainerakoan, kontzeptu ezezaguna zen 1931ko Euskal Herrian.

Bazen, bai, bere programan herri zapalduen autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen zuen talde bat: Alderdi Komunista. Baina, nekez pentsa daitezke Itsasondoko adierazpenak harekin zerikusirik zuenik. Garai hartako euskal abertzaletasunaren antipodetan zeuden komunistak, eta haien eragin politikoa hutsaren hurrengoa zen Euskal Herrian: mila bat militante ziren une hartan Espainia osoan, eta Bilbo aldean zuten taldetxora mugatzen zen bere presentzia euskal lurraldean; Gipuzkoan, artean, ez zen existitzen alderdia. Espainiar komunistek autodeterminazioaz zuten ikuspegia, bestalde, boltxebike sobietarren ildoaren kalkoa besterik ez zen, hala moduz ulertua, gainera.



*Sesión del Ayuntamiento Pleno para tomar posesión definitivamente de sus cargos día 18 de Abril de 1931*

- Asistencia
- Sr. Alcalde Presidente, D. José Manuel Sarasola Zalacain
- D. Luciano Aramburu Múgica, Primer Teniente de Alcalde
- D. Francisco M<sup>a</sup> Garmendia Garmendia, Regidor Síndico
- D. José Fco. Otegui Urretavizcaya
- D. José Vicente Sarasola Garmendia
- D. Francisco Ibarra Sempertegui
- D. José Luis Arbilla Gainzarain

[...] Y por último, puestos todos los Sres. Concejales de una misma conformidad, se acordó lo siguiente:  
En este momento histórico en que se ha desaparecido el régimen destructor de nuestra libertad política como nación, ante el hecho de la nueva estructuración del Estado Español, después de afirmar los derechos naturales e históricos que como tal Nación le corresponden, reclama como primer acto de auto-determinación del País Vasco la proclamación de la República Vasca confederada con las demás Repúblicas Ibéricas.  
A tal fin significa su enérgico apoyo hacia quienes en tierra vasca pugnan por el cumplimiento de cuanto en este orden se estableció en el solemne pacto de Donostia, y piden que adoptado por la Corporación este acuerdo, se transmita inmediatamente al Presidente del Gobierno Provisional, y al Excmo. Sr. Gobernador de la República de Guipúzcoa.  
Y no habiendo más asuntos que tratar se dio por terminada esta sesión...



Zalantzarik gabe, beste iturburu batetik iritsia zen kontzeptu berria 1931ko jeltzale gipuzkoar eta itsason-dotarrengana. Germaniar jatorriko filosofian haurtzaro luzea igarota, XIX. mendearen amaieran hartu zuen izena (*Selbstbestimmungsrecht* alemanez, *right of nations to self-determination* ingelesez) eta izana Europako politikagintzan gerora "europar mundu garai-kidea mugiarazi eta erauzi duen indar-ideiatako bat" izan den honek. XX. mendearen hastapenetako sozialdemokraziaren barne eztabaidagai mikatzenetako bat izan zen hari buruzko jarrera, austriar-hungariar eta errusiar inperioen baitan, bereziki. Baina estatubatuar bat, Woodrow Wilson lehendakaria (1913-1921), izango zen benetan *herrien autodeterminazio eskubidea* ezagutarazi eta agenda politikora ekarri zuena. Lehen Mundu Gerraren kitamendurako hark proposatu (eta hein batean inposatu) zituen 14 *puntueta*ko bosgarrenak bereziki lehenesten zuen inperio eta kolonien arteko auziak erabakitzeko orduan. Irlandaren independentziaren aldeko borrokan eragin zuzena edukiko zuen irizpide hark 1919tik aurrera.

Estatu espainolean, ordea, kontzeptu arrotza zen dozena bat urte geroago ere. Donostiako Itunaren ondotik, Rovira i Virgili kataluniarrak egin zizkion prentsan lehen aipamen ezagunak, orain ohikoa dugun esanahiarekin: "*Los catalanistas republicanos han obtenido de las izquierdas españolas reunidas en San Sebastián el reconocimiento explícito y unánime del hecho catalán y la conformidad con el principio de la autodeterminación en el caso de Cataluña.*" Arrasto horri jarraiki, 1931ko abuztuan bozkatu zen Nuriako Estatutuaren proiektuak ozenki aldarrikatzen zuen "*el dret que té Catalunya, com a poble, a l'autodeterminació de la restauració de la unitat catalana en proclamar-se la República, i de l'estat de dret creat pels decrets de 21 d'abril i de 9 de maig d'aquest any.*"

Baina, ordurako, Itsasondon behintzat, eskatuta zeuden beste horrenbeste. ■

Mikel Aramendi



Inazio Mujika, Alvaro Rabelli, Ibon Sarasola, Imanol Sarasola, Jokin Sarasola eta Gurutz Olaskoaga liburuaren aurkezpena.



"Ilunpetik Argira" liburuaren aurkezpen ekitaldia.

## "Ilunpetik Argira" liburuaren aurkezpena

Gurutz Sarasola Martinez, LOTSATIREN, poema liburuja jada kalean da. "Ilunpetik Argira" deitu dute. Liburuaren aurkezpena egiteko Lotsatiren senitartekoak, herritar batzuk eta liburuaren egilea bildu ziren udaletxean joan zen azaroaren 25ean.

Liburuja Alvaro Rabellik egin du, eta aurkezpenean, liburuaren nondik norakoak kontatu zituen. Liburuan, Lotsatik 1935-1936 urteetan idatzi zituen poemak bilduma jasotzen da eta 120 orrialdetan zabaltzen diren bi atal nagusi ditu. Batetik, 20 urte zituela bere burua trenbidera botata bizitza eten zuen poetaren datu biografikoak bildu ditu Rabellik. Bestetik, gerra aurreko prentsan argitaratutako poemekin, eta ezkutuan zeuden beste batzuekin Lotsatiren lan literarioa apailatu du.

Egilearen ustetan, Lotsatik euskara, erlijioa, baserria eta aberria bezalako gaiak jorratzen ditu bere poemetan, baina era berean poemetakoa gai nagusia maitasuna da. Maitasuna modu tragikoan ikusten du Lotsatik eta liburuaren egileari atenezioa deitzen diote poema horiek.

Rabelliren hitzetan, "lotsati pertsona barnerakoaia, apala eta sentibera bezala aurkituko dugu liburu honetan". Poema horien bidez, izaera gatazkatsua duen pertsona baten garapen pertsonala ezagutuko dugu.

Liburuja liburutegian dago, eta inork interesa badu, liburutegira joan, liburuja hartu eta Lotsatiren poemetan murgiltzeko aukera izango du. ■

## Udalak lurrak erosi ditu ondare naturalaren kontserbazioa bermatzeko


"Itsasondon ingurune naturalaren eta landa-eremuaren kontserbaziorako ekimenak" proiektuaren barruan, 2010 urtean, udalak hainbat lursail erosi du. Erosketa horien helburua udalerriko ondare naturalaren kontserbazioan lanean jarraitzeko aukerak emendatzea da, Udalak modu zuzenean gune horietan jardunez.

Udalak eginiko deialdi ezberdinetara bost eskaintza iritsi ziren, horietariko bat ezeztatu egin zen ezarritako epeetatik kanpo iritsi izanagatik. Gainerako lauak balioztatu egin ziren, zuten natur edo paisaia interesagatik eta zeuzkaten ezaugarriak kontuan izanik, eskaintzako prezioaren doitasunagatik. Eskuragarri zeuden baliabide ekonomikoak kontuan izanik azkenean hiru eskaintzako lurrak erosi ziren, orotara 4,65 hektarea. Horietariko gehienak Murumendi eta Larrakanda arteko mendihalean. Kasu gehienetan, egun pinudiak dauden lursailak izanik, bertako basoaren lehengoratzeari xede duten lanak burutzea aurreikusten du Udalak, pinuak bertako zuhaitz eta zuhaixka espezieez ordezkatzuz. Horretarako, inguru batzuetan pinuak bota eta pagoak, haritz kandudunak, haritz ilaundunak, elorri zuriak, urkiak, etab. landatzea aurreikusten da. Beste zonalde batzuetan, aldiz, landaketak egin ordez pinuak eraztundu edo bota egingo dira, pinudietan soilguneak sortuz eta bertako basoaren erregenerazio naturala ahalbidetuz. Modu berean, itxiturak egiteko asmoa ere badago basoaren lehengoratzeari bermatzeko. Gainera, bidezidorren eta mendi-ibilbideen inguruan hainbat gune

atundu nahi da, aisialdirako edota atse-denerako lekuak sortuz. Gune horietan burutu beharreko lanak datozen hilabeteetan zehar burutzea espero da. Lursail horietan egindako lanen nondik norakoak azaltzeko gune ezberdinetan panel eta kartelak jartzea pentsatua dago.

Lursail horietan herritarrak bertako basoaren lehengoratzeari lanetan parte hartzea sustatu nahi da. Horretarako, lanak burutu ahal irteerak egingo dira horien berri emateko eta aurrerantzean Itsasondoko Zuhaitz Eguna ere berreskuratzeko asmoa dago, udal-lur hauek erabiliz ekimen horretarako.

Ekimen horiei lotuta, Udalak lur gehiago ere erosteko asmoa du eta irekia geratzen da eskaintzak entzuterako Itsasondoko lurjabeek euren lurrak saltzeko asmorik izango balute. Zentzu horretan garrantzi berezia emango zaio Murumendiko inguruari, lekuak natura eta paisaia ikuspegitik duen interesagatik, nahiz eta beste inguru batzuetan erosteko aukerari ere ez zaion muzin egingo. Biodibertsitatearen kontserbaziorako lanak burutuzerako Udalak lursailak erosteko asmoa badu ere, lurjaberen batek bere lurretan modu horretako ekimenak gauzatu nahiko balitu udalarekin jar daiteke harremanetan dauden aukera eta baliabideez eztabaidatzeko. ■





# 8. Ibilbidea

## Itsasondo-loia-Sarobe-Itsasondo


**Iraupena: 2 ordu**  
**Ibilbidea:**  
 Herrigunea - Izarre: 20'  
 Izarre - Iraolaetxeberri: 20'  
 Iraolaetxeberri - Artetxe: 10'  
 Artetxe - loia: 20'  
 loia - Sarobe: 15'  
 Sarobe - Iraolaetxeberri: 5'  
 Iraolaetxeberri - Herrigunea: 30'



**Deskribapena:** Ibilaldi honi hasiera emateko, haurreskola eta frontoi zaharren artean dagoen bideari helduko diogu. Agarre baserrira heltzean, ezkerreko bidea hartuko dugu, asfaltozko bidera iritsi arte. Hemen aurrez aurre izango ditugu igo beharreko eskailerak, bide horretan jarraitu, eta loia aldera doan bidea heltzean, eskuinera hartuko dugu, Izarreko bidegurutzera heldu arte.

Izarre baserrira iristean, langa zeharkatu eta berehala eskuinera aurkitzen den bidexka hartuko dugu. Bide horretan dauden mugarriei jarraituz (U-Itsasondoko Udala) Iraolaetxeberri iritsiko gara. Bertan, ezkerretara hartu, ziloa inguratu eta gorantz doan bidea hartuko dugu Artetxeraino, han tarte tiki batean, kurba osatzen duen ormigoizko bidean sartuko gara. Kurba amaitzeko, ezkerrean dagoen bideari heldu eta pinudia alboan dugula, gorantz jarraituko dugu, antenetaraino. Han, bide nagusia hartu eta loiara iritsiko gara, ibilbidearen punturik altuenera iritsiz.

Beherantzko bideari ekiteko, arrasto zuri-horiak markaturiko bidea hartuko dugu, bost bat minuturen ondoren, ezkerretara, beherantz doan bidean jarraituko dugu Sarora iritsi arte. Han ormigoizko pista utzi eta ezkerretara dagoen bidetik Iraolaetxeberri iritsiko dugu. Eta buelta etorri garen bidetik egingo dugu. ■





# Teknologia punta-puntan



Gabonak iristear daude, eta urtero bezala, produktu teknologikoak geroz eta gehiago oparitzen dira.



**B**adirudi, gure Olentzerok, betiko arropa, kolonia... ekartzeaz aparte, geroz eta artikulu teknologiko gehiago ekartzen duela bere zakuan. Hala nola, PDA (edo poltsikoazko agenda), mugikorrak, argazki kamerak, bideo kamerak e.a. Baina, baita ere ordenagailuak, portatila zein betiko ordenagailuak (sobre-mesa izenarekin ezagutzen direnak), ekartzen ditu.

Hala ere, aholku batzuk idatziko dizkizuet zuen beharretara egokitzen den ordenagailua aurkitzeko.

Aurreneko pausoa da, ordenagailuaren lan nagusia zein den jakitea. Hau da, zertarako pentsatuta dagoen ordenagailuaren funtzio printzipala. Pentsatu beharra dago, jolasteko erabiliko den ordenagailu bat ez dela argazki edo multimedia diseinurako erabiltzen den baten berdina. Ordenagailu bakoitzak duen egitura bere eginkizunaren arabera moldatu beharra dago.

Diseinatzeke baldin bada, bai multimedia bideoak egiteko, argazkiak mani-

pulatzeko, 3D-ko irudiak egiteko... bi konponente eduki behar dira kontuan: txartel grafiko bat lan horietarako pentsatuta dagoena eta RAM memoria.

Diseinurako pentsatutako txartel grafiko onenak momentu hauetan ATI markakoak dira. Bi marka daude txartel grafikoaren merkatuan, ATI eta NVIDIA, baina azken hau gehienbat jokoetarako bideratzen da. Txartel grafikoak pentsatuta daude guk pantailan ikusten ditugun mugimenduak ahalik eta fluidoan izateko; hau da, irudiak kolpeka edo "pixelak" ikusteko posibilitateak saihestea.

RAM memoria oso garrantzitsua da; horrela, ordenagailuak egin beharreko esfortzuak askoz txikiagoak dira. Beraz, zenbat eta RAM memoria gehiago eduki, hobe.

Jolasteko ordenagailuak, diseinatzeke pentsatuta dauden ordenagailuen antzekoak dira. Baina, kasu honetan ahalik eta txartel grafikorik onena eduki beharko du, bestela jolasteko hainbat jokorekin arazoak eman baititzake. NVIDIA da markarik onena kasu honetan.

RAM memoria ere oso garrantzitsua da; zenbat eta gehiago eduki hobe. Eta baita disko gogorraren (HD) kapazitatea ere, zenbat eta gigabyte gehiago hobe, jokoek asko okupatzen baitute disko gogorrean.

Horiek dira, labur-labur, kontuan eduki behar diren atalak. Azken finean, biak oso antzekoak dira, baina txartel grafiko batek asko laguntzen du eta igartzen da zer lan egiteko dagoen pentsatuta. RAM memoria normalean ondo dago bien kasuetan.

Hala eta guztiz ere, beste faktore batzuk ere eduki behar dira kontuan. Adibidez: elikadura iturria, RAM memoriaren frekuentziak, prozesagailuaren frekuentzia eta nukleoak, ama plakaren hornikuntza..... Baina, atal horiek, nahi baduzue, pixkanaka azalduko dizkizuet.

Informazio gehiago nahi baduzue, sartu web helbide hauetan:

<http://www.nvidia.es>

<http://www.amd.com/es/Pages/AMDHomePage.aspx>

**AMDHomePage.aspx**

Edo, beti bezala, korreo elektronikoko bidali dezakezue nire helbidera:

[djashbazaga@hotmail.com](mailto:djashbazaga@hotmail.com)

Hurrengo zenbakira arte. ■

# Hondakinak Biltzea Goierrin

**Gipuzkoako hainbat udalerri-ritan, hondakinak biltzeko beste sistema bat ezarri da, "atez ate"ko sistema.**

**Goierriko hainbat udalerri, sistema hau ezagutu eta aztertu nahian, Sasieta Mankomunitatera jo zuen.**

Bilera batzuk egin ostean, Sasieta Mankomunitateko Batzar Errektorea akordio batera iritsi da:

**HIRI HONDAKINEN "ATEZ ATE"KO BILKETA SISTEMAREN AZTERKETA EGITEKO AKORDIOA**

**Sasieta Mankomunitateko Batzar Errektoreak, 2010eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, AKORDIO hau hartu du:**

1. Sasieta Mankomunitateak hiri hondakinaren **gaikako bilketa egiteko beste modalitate batzuk aztertze-ari** ekingo dio: gaur egun edukiontzi ezberdinak biltzen dituzten borondatzeko apartazio guneetan oinarritutako sistemaz aparte, **"atez ate"** izenez ezagutzen den sistema eta **sistema mistoa** (mankomunitate beraren barnean bi sistema hauek uztartuko dituen). Azterketa erabiliko da etorkizunean Sasieta Mankomunitateko eremuan ezartzeko bideragarritasuna zehazteko.

2. Aipatutako azterketa egungo hiri hondakinaren bilketa zerbitzuko **kontzesioaren epemuga baino urtebete lehenago** amaituta egongo da, ondoren, mankomunitateak hala erabakiko balu, lehiaketa berriaren baldintza pleguak zehazteko oinarri bezala erabili ahal izateko. Dena den, hori baino lehen, azterketaren **emaitzak aztertu eta eztabaidatzeko behar adina denbora** izango da.

3. Azterketa behar bezala egiteko, mankomunitateak erakundeen arteko **lankidetzak hitzarmenak edo akordioak bultzatuko** ditu "atez ate"ko sistema eta sistema "mistoa" garatuta dagoen lurraldeetako **datuak trukatu** eta **aholkularitza teknikoak** jaso ahal izateko. Horretaz aparte, "atez ate"ko bilketa arloan eta sistema "mistoa" ospea duten **erakunde independenteen edo adituen kanpoko asistentzia teknikoak** kontratatuko du.


4. Azterketa egin bitartean, **etxeetako hondakinaren zati organiko konpostagarriaren gaikako bilketa marroi koloreko edukiontzi bidez Sasieta mankomunitate osoan zabalduko da** eta honekin batera, **autokonpostaia ere ahalik eta gehien zabalduko da** (autokonpostaia bultzatzeko lanketa berezia eginenez), Sasieta Mankomunitateak 2009/12/21ean eta 2010/04/14an egindako bilkuran hartutako erabakiak betez.

5. Edukiontzi bidez egindako gaikako bilketa sistemarekin, edo agian sistema honen bilakaera eta optimizazio modura txartel adimendunen teknologia erabiliz, sistema "personalizatu"arekin lortutako emaitzak batetik, eta "atez ate"ko edo sistema "mistoko" bilketa ezartzeko bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren inguruko azterketaren ondorioak bestetik, bilduko dira. **Mankomunitateak etorkizuneko bilketa zerbitzuaren baldintza pleguen zehaztapen eta edukiaren inguruan dagoen erabakia hartzeko** oinarri bezala erabiliko ditu azterketa hauek.

6. Mankomunitateko Batzar Errektoreak **Jarraipen batzorde** bat izendatuko du, berak erabakitzen duen maiztasunarekin bildu eta aipatutako **azterketaren garapenaren jarraipena** egiteko.

7. Bilketa sistema edozein izanik ere, mankomunitateak aztertzen hasiko da etorkizunean udalen ekarpenetan aldagai berri bat sartzeko aukerak, herri mailan hondakin gutxitze, birziklatze eta konpostatze maila eta deusestatzera (zabortegira edo errauskailura) bidalitako hondakin kantitatea kontuan hartuko dituen.

Hemendik aurrera, Itsasondoko Udalak gai honen inguruan esfortzu berezia egin nahi du. Akordioan aipatzen den azterketa hori egiten denean, honen inguruko informazioa herritarrei zabalduko zaie. ■





## Ehundik gora txirrindulari mendikleta trabesian

Itsasondon tradizio handia duen proba da urtero egiten den BTT trabesia. Aurten ere txirrindulari zaletu ugari bildu zen irteeran, mendi bizikletak hartuta, Itsasondon hasi eta bukatzen den proban parte hartzeko prest. Oraingoan, 116 lagunek eman zuten izena, eta azpimarratzekoa da denek bukatu zutela proba. Ijito Kirol Elkarteako antolatzailak eta parte-hartzaileak, denak pozik gelditu ziren probak izandako harrerarekin. Txirrindulariek bi ibilbide zituzten aukeran, bata 29 kilometrokoa eta bestea 20koa. Trabesia bat izaki, bukaeran ez zen sailkapenik egin. Horren ordean, kirol materiala banatu zuten parte-hartzaileen artean.



## Euskara Eguna

Joan zen abenduak 3, itsasondok ekitaldi desberdinekin ospatu zuen euskararen eguna. Eskolako haurrek, antzerki, abesti eta jolas desberdinak egin zituzten eskolan. Ondoren, gaztelekura inguratu eta txokolate bero bat hartuz, indarrak hartu zituzten, Iñaki Lasaren ipuinak entzun aurretik.

Iñakik ipuin desberdinak kontatu zituen; saguarena, animaliaarena, txinako ipuinak, ... txiki zein handiagontzako, munduko ipuin desberdinak ezagutzeko aukera izan zuten gerturatu ziren guztiek.

Amaitzeko, festak, trikilariek lagunduta plazan jarraitu zuen.



## Gaztaina jana

Azaroaren 13an genuen hitzordua eta garaiko giroa lagun izan genuen, ateri baina hotz, gaztainak erre bitartean su ondoan epelean egoteko paregabea. Gaztainak erre ederrak zeuden. Sagardoak eztarria freskatzeko zigun bitartean, gaztaintek eskuak epelitzen zizkiguten.

Pena aurten gaztaina bila joan ezin izana, eguraldi makurra egin baitzigun; ea hurrengo urtean zorte gehiago dugun.



## Euskal Dantza Ikastaroa

Aurten Itsasondoko Udalak ikasturte osoko euskal dantza ikastaroa jarri du martxan. Larunbatetan, ordu eta erdiz, zortzi herritar elkartzen dira eskolako aterpean. Aurtzaka dantza taldeko Ainara Irakaslea, dantza desberdinak erakusten ari da. Asmoa, maiatzera arte ikastaroa ematea litzateke, eta urtean zehar ekitaldi batzuk egitea ere bai, adibidez, San Juan bezperan, suaren inguruan. Partaideek esan dutenez, asko ari dira ikasten, eta oso gustura daude.

Lerro hauen bidez esan nahi dizuegu, herritarren bat interesaturik balego parte hartzeko, oraindik ere izena eman dezakeela. Interesa duenak udaletxean galdetu dezake, eta bertan emango zaizkio argibide guztiak.



## Liburuaren Eguna

Urriaren 24a, nazioateko liburuaren eguna izan genuen eta aurten jaieguna izanik ere liburuak kalera atera zedin egun aproposa zela iritzi genion. Esan eta egin, Itsasondoko plazara liburu aukeratuen sorta atera genuen eta nahi izan zuen orok irekiak izan zituen liburutegiko ateak.

Hurrengo urtean ere liburuak merezi duen omenaldia egin asmoz, kalean izango gara. Bitartean ez ahaztu liburuak ematen dituzten plazez disfrutatzea. Irakurketa ona izan dezazuela.



## Sei errealitate, 6 kolore, 6 ikasle Itsasondon

Aurten ere gorriak ikusi ditugu euskaraz ikasteko sei pertsonako talde bat osatzeko.

Baina, lortu ditugu, eta esan beharra dugu herritarren laguntza izan dugula ikasle hauek animatzen.

Taldea ezin da anitzagoa izan eta horretan datza bere aberastasun handiena.

Bost gizonezko eta emakume batek osatzen dute eta denek oso errealitate ezberdina dute.

Egle mexikarra da, Giorgos greziarra, Juanan katalana, Jorge, Javier eta Josetxo zonaldean jaio eta bizitakoak dira; eta euskara oso gertutik bizi izan badute ere (haurrak eskolan dituzte eta euskal kulturaren lan egiten dute), ez dute ikasteko aukerarik izan.

Astean hiru egunetan joaten dira eta bi ordu eta erdiko saioak egiten dituzte. Gogotsu eta ilusioz hasi direla diote eta horrela ematen du.

Gaur egun, gure gizartean denbora "urra" bihurtu den garai honetan, sei lagun hauek beraien denbora librean euskara ikasten jarduteak ilusioz betetzen gaitu asko.

Euskaraz hitz egiteak, euskaraz pentsatzeak, euskaraz sentitzea ekartzen baitu eta horrek gure ingurua eta errealitatea ezagutzeko eta bizitzeko.

Euskara ez baita arau, hitzez eta gramatikaz osatutako hizkuntza bat soilik. Hemen bizi garen askorentzat, bizitzeko modu bat da.



Beraz, animo sei ikasle horiei! Urte askotan jarraitu dezatela elkar ikasten eta disfrutatzen.

Animo andereñoari ere, gaztea dela eta ilusioz beteta dagoela esan baitigute.

Jakin dezazuen, poztasunez begiratzen diogula udaletzeko goiko soilairuko argiari astelehen, astearte eta ostegunetan, zazpi eta erdietatik bederatzietara.

Animo koadrila!






### SUSTRAI BELTZAK Jon Arretxe

Terrorearen generoa landu du oraingoan Arretzek, hamaika istorio beldurgarri biltzen dituen ipuin liburu honekin. Hil-keta odoltsuak aurkitu

ditugu batean, zomorroak ilunpean bestean, ulertu ezinezko gaitzakeria eta krudelkeria hurrengoan...

Izugarrikeria horien gertalekuak, berriz, munduko hainbat txoko izan litezke: Marrakex, Siberia, Amazonia, Lahore, Varanasi... baina baita aireportu aseptiko bat, edo norberaren atariko etxe arrunt bat ere, ikarak nonahi eta noiznahi harrapa gaitzake eta ustekabean gehienetan.



### AVE DEL PARAISO Joyce Carol Oates

Ipar Amerikan, XX. Mende amaieran kokatzen da liburua. Zoe Kruller, emazte eta ama gaztea, krudelki eraila izan da, bere senarra eta


amorantea dira susmagarri nagusiak. Amodioa, erotismoa, galera, xamurtasuna eta bortizkeria gurutzatzen dira nobela honetan.



### LA CAIDA DE LOS GIGANTES Ken Follet

Lehenengo Mundu Gerratearen ingurumarian, amerikar, britainiar, errusiar eta alemaniar familien bizimodua azaltzen

du; gerrateak beraien bizimoduak nola aldatu zituen. Ken Follet-en hitzetan, "Istorioko hau gure aitonen istorioa da eta era berean gurea ere bai."



### ROSAS SIN ESPINAS Nora Roberts

Istorioko erromantiko eder bat dugu honakoa; maitasuna eta adiskidetasunaren muga leuna zeharkatzen duena. Hamaika urte zituenetik

bere ezkontzarekin amesten du Emmelinek, beti izan da erromantiko hutsa eta gizonak eta loreak dira bere bizitzako pasioak. Oraindik ez du bere bizitzako gizona aurkitu baina bapatean Jack-ek bere atea joko du...

**LIBURUTEGIKO BAZKIDE TXARTELA**  
Liburutegiko bazkide egin nahi duen edozein herritarrek,  
Udaletxera joan eta eskaria egin behar du.  
Bertan liburutegira eta Kzgunera sartzeko aukera  
emango dion txartel magnetikoa eskuratu ahal izango du.  
Txartelaren kostua 2€koa da.



( lorezaintza gomendioak )

## Euphorbia Pulcherrima (Pazko Lorea)

Izen asko landara bat deitzeko: pazko lorea, poinsetia, gabon lorea...

Jatorriz Mexikokoa da eta seguruenik sasoi honetan gehien saltzen dena, momentu honetan ematen bait ditu hain ezagunak diren "brakteak" (hosto faltsuak). Braktea hauen kolore ezagunena gorria bada ere, beste hainbat koloretakoak ere daude, hala nola horiak, arrosak, laranja eta bi kolorekoak ere bai.

Landara honen benetako loreak txikiak eta horiak dira.

### Landaretza teknikak:

- Temperatura. Loraldi garaian 12-22° C. Urtean zehar tenperatura baxuagoan bizi ahal dute, baina ezin dute izotzik jasan.
- Ura. Lurra oso arin eta lehorra dagoenean bakarrik ureztatu behar da, eta ez inoiz utzi ura platerean.
- Ongarriak. Egokia izaten da ongarrizatzea 15 egunetik behin, hazten ari denean, baita loretan dagoenean.
- Atmosfera. Ez dute jasaten aire geldoa, baina kontuz korrienteekin gela aireztatzen dugunean, Gasezko estufak ez die onik egiten.

### Nola birloratu arazi:

- Gabonetan erosten dugu, eta behin hauek pasatutakoan, koloretako brakteak eta baita zenbait hosto erortzen zaizkio eta landarea hiltzearekin dagoela pentsatzen dugu, baina ez da horrela. Aldaketa hau fisiologikoa eta normala da.
- Brakteak galdu ondoren zurtoina oinetik 10cm-tara moztu behar da, lurra ia lehorra eta tenperatura nahiko baxua mantenduz.
- Maiatzean, landarea hazten hasten denean beste lorontzi batera (ez oso handia) pasako dugu eta turbarekin beteiko dugu.
- Maiatzetik irailera 15 egunetik behin ongarrizatuko dugu fosforo eta potasioan aberatsa den ongarrira erabiliz.
- Urritik aurrera argitan egongo den ordu kopurua murrizten joango gara (8-9 gehienez). Beste ordu guztiak ilunpean eduki behar da. Landara "fotoperiodika" denez egun motz horiek probokatzen dute lorakuntza eta brakteen ekoizpena ere.

Aholku erraz hauek jarraituz poinsetia urte guztian edukitzea lortu dezakegu.■



Maixel Garmendia  
Izadia Loradenda. BEASAIN  
943 88 14 40

( errezeta )

## Turroi flana

### Osagaiak: 6 pertsonentzako.

- 300 gr. turroi biguna
- ¾ l. esne
- 75 gr. azukre
- 8 arrautza gorringo

### Prestakuntza:

Hasteko, esnea berotzen jarriko dugu. Behin esnea beroa dagoela, turroia botako diogu zatituta, esnearen beroarekin urtu dadin. Ondo urtu ondoren "txino" batetik pasako dugu turroiak dituen urrak kentzeko (ez ditugu erabiliko).

Beste alde batetik, gorringoak eta azukrea nahastuko ditugu, behin ondo nahastuta daudenean, esnea eta turroia gehitu. Kontu esnea ez dadila oso beroa egon arrautzak egosi ez daitezen.

Molde batean, nahi izanez gero, karamelu pixka bat botako dugu eta gero aurrez prestaturiko nahasketa.

Labean sartuko dugu 180 °C maribainutan erabat egin da dagoela ikusi arte.

Behin hoztuta, jateko prest izango dugu.■



Jose Ignacio Duhau  
Rubiorena Jatetxea. BEASAIN  
943 88 57 60



## Talo-festa

Abenduak 11n, Talo festa ospatu genuen Itsasondon. Arratsaldea girotzen hasteko bertsolariak izan genituen, tartean trikilariak parte hartu zutelarik. Triki-poteo hau amaitzean, gure barrenak goxatzeko, nahiko talo eta sagardo izan genuen.

Talo-festan bildutako dirua, iaz bezala, Haitira laguntzeko bideratuko da.



## Esaera zaharrak

"Etxean otoitzik ez egiten, eta auzoan meza ematen".

"Munduan nahi duenak luzarozan bizi, oiloekin ohera eta txoriekin jaiki".

## Kultur Agenda

### Abendua

Gabonetako oporraldiak: haur, nerabe eta gazteentzako ekintza desberdinak.

24: Olentzero

30: Ziklokrossa

### Urtarrila

04: Haurrentzat "Ali" antzezpena arratsaldeko 5etan eskolako aterpean.

23: Mendi irteera

"Itsasondo ezagutuz"

### Otsaila

26: Ijito Eguna

### Martxoa

8: Emakumeen Eguna

## Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170

- Gizarte Laguntzailea
- Udal Arkitektoa
- Epaitegia

Haurreskola 943 164831

Herri Eskola 943 887704

Arbel-Aitz Elkartea 943 889399

Lurdes Janari Denda 943 885236

Arrastoa Botika 943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555

Traste Zaharrak 943 161590

Taxi (Ordizia) 943 881486

## itsasondo.eo

Herriko Aldizkaria ((11.zk.)) Abendua-Martxoa 2010

### Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Martinez Maitia  
Ainara Urteaga  
Arantzadi Elkartea  
Axier Bazaga  
Belen Mendizabal  
Danel Etxeberria  
Enma Martinez  
Eskolako haurrak  
Haizea Arruti  
Haurreskolako Hezitzaileak  
Iker Mendizabal  
Jose Ignacio Duhau  
Jubilatuak  
M<sup>a</sup> Jose Arrizabalaga  
Maite Lasa  
Maixabel Garmendia  
Mikel Aramendi  
Mikel Mendizabal  
Miren Segurola  
Rosi Noguera  
Unai Agirre  
Zuberoa Jauregi

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua:  
SS-297-2010

ISSN:  
2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU  
HURRENGO ALEA  
MARTXOAN IZANGO  
DUZUTELA ETXEAN**